



ERRETERIA
UDALA



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ERRETERIAKO UDALAREN ARTEKOA, "ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA", HONEN BARRUAN DAGOENA: LEHENTASUNEZ JARDUTEKO EREMUAK BERRABIARAZTEKO PLANEAN (PJE).

BILDU DIRA

Alde batetik, Javier Hurtado Domínguez jauna, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, Lehendakariaren irailaren 7ko 30/2020 Dekretuaren bidez izendatua (2020ko irailaren 8ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzuz, eta Gobernu Kontseiluaren 2021eko uztailaren 27ko erabakiaren bidez hitzarmen hau formalizatzeko baimena duena.

Bestetik, Aizpea Otaegi Mitxelena, Errenteriako Udaleko toki-erakundeko alkate-udalburua, erakunde hori ordezkatzuz, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, 2021eko irailaren 7ko Udal Tokiko Batzarran hartutako erabakiaren arabera.

Hitzarmenakideek elkarri aitortu diote legezko gaitasun nahikoa dutela lankidetzahitzarmen hau izenpetzeko, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

I.- 2019-2021 urteotan, Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri eta Oarsoaldea eskualdeek abiarazi zuten Eskualdeko Plan Estrategikoak (EPE deritzenak) egiteko prozesu bat (2021ean amaitutakoa), Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Traktoreak Sustatzeko eta Berrabiarazteko Programaren bidez. Programa horren helburua da ekonomia, enplegua, prestakuntza nahiz gizarte-kohesioa suspertzea.

II.- 2020ko azaroaren 3an, Euskadiko Gobernu Kontseiluak BERPIZTU programa onartu zuen (Euskadiko ekonomia eta enplegua sustatzeko 2020-2024 programa), erantzun integrala emateko Euskadin ekonomia eta enplegua suspertzeko erronka nagusiei.

Haren Artezkiritza Kontseiluak 2021eko martxoaren 10ean onartu zuen abian jartzea behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak berrabiarazteko Plan Berezia.





III.- Ondoren, Gobernu Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 18an, onartu zuen 180 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura onartu zuen behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak berrabiarazteko (LJE aurrerantzean). Ez-ohiko inbertsio-plana da, behar handieneko eskualdeetan edo Lehentasunez Jarduteko Eremuetan (LJE) hogeit bat proiektu traktore dinamizatzeko, eskualde horiek eraldatzeko behin betiko bultzada emateko eta Euskadi leheneratzeko prozesuan atzera ez geratzeko.

Proiektu traktore horiek zenbait kudeaketa-arlotan dute eragina (Industria, Nekazaritza, Kultura, Enplegua, Lanbide Heziketa, Osasuna, Etxebizitza, Trenbide Azpiegiturak, Turismoa, etab.), eta helburu nagusi dute inbertsio zehatzak egitea.

IV. - Behar Handieneko Eskualdeak Berrabiarazteko Planak aurreikusten du, helburu horiek lortzeko, proiektu traktore batzuk egitea. Proiektu horiek partaidetza- eta lankidetzatza-prozesu batean definituta daude, eta eskualde bakoitzeko eragile ekonomikoek, sozialek zein erakundeek esku hartu dute modu erabakigarrian prozesu horretan. Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri eta Oarsoaldea eskualdeak hartzen ditu haren aplikazio-eremuak, eta 2021-2022 aldian gauzatu beharreko inbertsio-jarduera zehatzak sortzen ditu, batzuetan 2023ko ekitaldira hedatzeko aukerarekin.

V.- Planean definitutako proiektu traktoreen artean, zera dago, Oarsoaldeko PJEn ezarriko den **"ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA"** deritzona. Haren jardunak bat egiten du Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eskumen-esparruarekin, haren helburua baita ondare industrialaren balioa bultzatzea nahiz sustatzea, eskualdeko produktu turistiko-kultural bereizle gisa.

Errenteriako Udala Oarsoaldea Eskualdeko kide da, eta hari dagokio bere lurralde-eremuko toki-interesak kudeatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

VI. – Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.36 artikulua eskumen eksklusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari turismoaren arloan.

Lehendakariaren irailaren 6ko 13/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 15. artikuluan ezartzen du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokiola turismoaren alorra, beste jardun-arlo batzuen artean.

Arau-ildo horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak jarduten du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuan esleitutako eskumenen esparruan. Dekretu horren 1. artikulua ezartzen du irailaren 6ko 13/2020 Dekretuaren 15. artikulua hori garatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen barruan, Turismo,



Merkataritza eta Kontsumo Sailak, besteak beste, beteko dituela turismoari dagozkion eginkizunak.

Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak honako hau xedatzen du 4.4 artikuluan: *"Turismoaren arloan helburu erkideak lortzeko, Euskadiko Turismo Administrazioak lankidetzahitzarmenak sinatu ahal izango ditu administrazio publikoekin, erakunde publikoekin, mankomunitateekin, partzuergoekin eta turismo-agentziekin"*.

VII.- Hitzarmena administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren (SPAJL aurrerantzean) urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan lankidetzahitzarmenatarako xedatutakoaren arabera.

SPAJLk, Atariko Tituluaren VI. kapituluan, adierazten du hitzarmenak direla, besteak beste, administrazio publikoek hartutako ondorio juridikoak dituzten akordioak (hala nola toki-administrazioa osatzen duten erakundeak – Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.3 artikulua –), helburu komun baterako.

SPAJLren 3. artikulua lankidetzaprintzipioa sartzen du administrazio publikoen jarduketarako printzipio orokor gisa, eta legeak berak garatzen du hura III. tituluan, administrazioen arteko harremanei buruzkoan. Hala, 140.1 artikulua, d) letran, lankidetzaprintzipioa jasotzen du, baldin eta bi administrazio publiko edo gehiagok, beren borondatez eta beren eskumenak baliatuz, ekintza erkide baten aldeko konpromiso espezifikoak hartzen badituzte. III. titulu horretan bertan, **144.** artikuluan zehazten da beste administrazio publiko batzuen baliabide materialak, ekonomikoak edo giza baliabideak ematea 1.d) idatz-zatian aurreikusitako lankidetzatekniketako bat dela.

Bestalde, SPAJLren 140. artikulua 2. zenbakian, administrazioen arteko harremanak arautu behar dituzten printzipioak arautzean, xedatzen da, III. titulu aurreikusi ez den guztian, toki-araubidearen arloko oinarrizko legeak arautuko dituztela Estatuko Administrazio Orokorren edo Autonomia-erkidegoetako Administrazioen nahiz toki-administrazioa osatzen duten erakundeen arteko harremanak.

Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100.1 artikulua ezartzen du lankidetzahitzarmenak egiteko aukera, beren artean edo gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizientea egiteko eta administrazio-bikoiztasunak saihesteko edo ezabatzeke.

VIII .-Adierazitako arrazoiekin bat etorritik, bidezkoa da hitzarmen honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak, 49.7 artikuluan eskainitako salbuespeneko bidea baliatzea. Artikulu horrek aukera ematen du laguntzak zuzenean emateko, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak daudenean.



Ez-ohiko ekimen horren jarduerak agerian uzten dute interes publikoko arrazoi nabarmenak daudela berrabiarazteko behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak, hala nola Oarsoaldea. Horretarako, premiazko jarduera duten proiektu traktoreak sustatzen dira, eskualde horiek leheneratzen laguntzeko eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan turismo-sektorea berraktibatzeke.

Jarduera horrek eskatzen du administrazioen arteko lankidetzaren eraginkorrean oinarritutako formulak ezartzea – horregatik bideratzen da lankidetzaren bitartez –, eta, kasu horretan, gainera, bi alderdien eskumeneko eta intereseko jardunak biltzen dira, helburu berdinak lortzeko. Horrek agerian uzten du ezin dela deialdira xedapen orokor baten bidez aurkeztu.

Proiektuaren espezifikotasunak eta berariazko eta ez-ohiko zuzkidura izateak ezabatu egiten du laguntza Sailaren dirulaguntzen programa batean sartzeko aukera, eta ezin da deialdia egin xedapen orokor baten edo dirulaguntza izendun baten bidez, laguntza horiek Gobernu Kontseiluak 2021eko maiatzaren 18an onartutako ez-ohiko inbertsio-aurrekontuetako programa batetik baitatzen.

Errenteriako udalerrria partaide duen Oarsoaldea Behar Handieneko Eskualdeak Berrabiarazteko Planean jasotako jardueren esparruan aktibo turistikoak hobetzeko jardueren helburua kontuan hartuta, bi alderdiek administrazioen arteko hitzarmen hau egitea erabaki dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta azaldutako guztia kontuan hartuta, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da alderdien lankidetzaren oinarriak eta elkarrekiko konpromisoak ezartzea. Horren helburua da bermatzea gauzatuko dela "**ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA**" proiektua, hain justu, Errenteriako udalerrian behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak (LJE) sustatzeko planean sartuta dagoena. Hura honako asmo hau lortzeko beteko da:

Oinezkoentzako bizikleta-ardatz baten funtzionaltasuna indartzea, eskualdeko bisitari zein biztanleentzako erakargarria. Horrek balioa sustatuko du baliabide turistiko natural eta ondare kulturalaren baliabide gisa, eta, halaber, integrazioa, sinergiak nahiz sustatzea ibiliko ditu, Arditurriko bide berdearen turismo naturalaren elementu gisa.

Bigarrena.- Hitzarmenaren xede diren jarduerak.

Hitzarmen honen xede dira "Arditurriko Bide Berdeko Korridore Ekoturistikoa" proiektua aplikatuz garatzen diren jarduketak -proiektu hori sartuta dago behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak (LJE) sustatzeko planean-. Zehazki:

- **Enbor nagusia leheneratzea eta hura berriro bertakotzea Errenteriako tartean:** Errenteriako bide berdea leheneratzea, turismoa Oarsoaldetik ardatz osora bultzatzeko.

Hirugarrena.- Alderdien konpromisoak.

1.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak konpromisoa hartzen du ezarritako zenbatekoa transferitzeko.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak hitz ematen du zenbateko hau jarriko duela hartutako konpromisoaren ondorioz:

- 2021. urtea: 290.000 euro

Programetako jarduerak finantzatzeko dira honako taula honetan zehaztutako programen arabera banakatuta:

| URTEA | JARDUKETA | ZENBATEKOA |
|--------------|---|-------------------|
| 2021 | Enbor nagusia leheneratzea eta hura berriro bertakotzea | 290.000 |

2.- Toki-erakundeak honako jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

2.1. Programako jarduerak gauzatzea eta aurreko puntuan aurreikusitako funtsak hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko eta garatzeko gastuei aplikatzea.

2.2. Proiektua gauzatzeko epeak betetzeko eta lortu nahi diren emaitzak maximizatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak bideratzea.

2.3. Hitzarmena egin dela justifikatzea, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari hitzarmen honetan jasotako dokumentazioa bidalita (zortzigarren klausula).

2.4. Administrazio-jardunean objektibotasun-, publizitate- eta gardentasun-printzipioen arabera jardutea.

2.5. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari igortzea jarduketan eta transferitutako funtsen gauzatzeko-egoeraren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa.

2.6. Jarduerak egiten direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatzea, bai arau-izaerakoak, bai kudeaketaren arlokoak.

2.7. Jarduera horiek Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren finantzaketarekin egiten direla jakinaraztea.

2.8. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 azpikontratatu ahal izango du, gehienez ere, osorik edo partzialki. Halaber, kontratazioak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntza ematen duen erakundeak aldez aurretik baimendu beharko du kontratazioa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Kasu horietan, Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak baimena emango du diruz lagundutako jarduera xede duten kontratu horiek egiteko.

Proiektu honen helburuak hobeto lortzeko, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Errenteriako Udalak jarduketa horiek lehentasunezkoztat jotzeko konpromisoa hartu dute.

Laugarrena.- Finantzaketa.

1.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Errenteriako Udalari egingo dion ekarpena 21.0.1.12.11.0000.2.752.01.75111.000/H aurrekontu-kredituaren edo hori ordeztzen duenaren kontura egingo da, gehienez ere 290.000 euro, hirugarren klausulan ezarritako programen arabera banaketarekin bat etorritik.

2.- Finantzatu beharreko zenbatekoa zuzeneko dirulaguntza bidez emango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 26ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikulua babesean.

3.- Hitzartutako urterokoak ez aldatzeko, behar bezala justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak direla-eta jarduketak ezin badira aurreikusitako epean gauzatu, eskatu ahal izango da gauzatzeko eta justifikatzeko epea luzatzeko, eta epea amaitu baino lehen eskatu beharko da. Luzapen hori Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak baloratu eta onartu beharko du..

4.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, hitzarmen hau sinatu ondoren, hitzarmenaren arabera hitzartutako zenbateko osoaren 290.000 euroko ordainketa bakarra transferituko dio Errenteriako Udalari, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatuta ondoren.

5.- Ezin izango da inola ere handitu hurrengo ekitaldiari dagokion konpromisoa.

Bosgarrena.- Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna.

Hitzarmen honen esparruan jasotako ekarpen ekonomikoa bateragarria izango da erakunde honek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berarekin ematen dituztenekin, betiere hitzarmenaren xede diren jardueren kostua gainfinantzatzen ez bada.

Hitzarmen honen babesean emandako ekarpen ekonomikoaren zenbatekoak, helburu bera duten beste diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu

garatu beharreko jardueraren kostua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikuluan adierazten den moduan.

Kasu horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak emandako laguntzari soberakina kenduko zaio.

Seigarrena.- Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoa.

1. Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoa sortuko da, alderdi sinatzaileen ordezkari hauek osatua:

- a) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko titularrak izendatutako bi ordezkari; horietako bat presidentea izango da.
- b) Toki-erakunde betearazleak izendatutako bi ordezkari.

Jarraipen Batzordea bi hilean behin bilduko da, edo premiek hala eskatzen dutenean.

Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen adituak eta teknikariak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, aztertzen diren gaiei buruzko aholkularitza eman diezaioten Batzordeari.

2. – Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoak honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Proiektuak gauzatu direla egiaztatzea. Era berean, egiaztatzea lortu nahi diren helburuetara egokitzen direla eta zer-nolako bilakaera ari diren izaten
- b) Haien ustez hitzarmena hobeto antolatzeko eta funtzionatzeko egokienak diren neurriak hartzea.
- c) Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortzen diren arazoak ebaztea.
- d) Hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatzea, bai eta haren ikuskapena, jarraipena eta kontrola egiteko ere.
- e) Proiektuak eta jarduerak gauzatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren dokumentu teknikoak eta txostenak zehaztea.

Erabakiak ordezkaturako alderdiak ados jarrita hartuko dira. Klausula honetan berariaz ezarri gabekoari dagokionez, funtzionamenduari eta araubide juridikoari dagokienez, Batzordea arautuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen atariko titularen II. kapituluaren 3. atalean xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Publizitatea.

1. Plana nabarmentzeko eta ikusarazteko, toki-erakunde betearazleak jarduketa hauek egingo ditu:

- a) Sare sozialetan eta web orri ofizialetan online hedatzeko jarduerak, zeinek deskribatuko dituzten egin beharreko jarduerak.

b) Informazio saioa, ekitaldi publiko baten bidez, komunikabideei eta, oro har, herritarrei zuzendua, Planaren helburu eta jardueren berri emateko.

Klausula honetan aipatzen diren argitalpen guztietan, planaren aurrekontuarekin osorik edo zati batean finantzatutakoetan, jasoko da "Lehentasunez Jarduteko Eremuak Eusko Jaurlaritzaren finantzazioarekin" testua, baita Hitzarmena sinatu duten guztien irudi instituzionala ere.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.- Ekitaldia amaitutakoan (2021eko abenduaren 31), eta beranduenez 2022ko martxoaren 31n, toki-erakundeak honako dokumentazio hau bidali beharko dio Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzari — diru-laguntza kudeatzen duen organoa —, hitzartutako jarduerak behar bezala gauzatu direla justifikatzeko:

a) Hitzarmen honen xede diren ekintzei dagokienez, proposatutako helburua lortzeko lortutako betetze-maila jasotzen duen azalpen-memoria.

b) Esku hartze bakoitzari buruzko txostena.

c) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituenak:

– Gastuen zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

– Zerrenda horri erantsiko zaizkio fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

– Hala badagokio, jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua.

d) Toki-erakundeko kontu-hartzailearen txostena, diruz lagundutako jarduketei dagozkien gastuak, aurreko laburpenean adierazitakoak, egiazkoak direla ziurtatzen dituenak.

Proiektuaren kontu-auditoretza emateak ez du salbuesten gastu- eta ordainketa-dokumentuak aurkeztetik.

3.- Hedapen egokia justifikatzeko, erakunde onuradunak justifikazioari erantsiko dio hitzarmen honen jarduketekin lotuta sortzen diren liburu, txosten, liburuxka, kartel edo bestelako dokumentazio bakoitzaren ale bat, edo, bestela, kopia bat euskarri fisiko edo magnetikoan, haren izaeraren edo bataren edo bestearen egokitasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

Bederatzigarrena. – Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta hitzarmen honen bederatzigarren klausulan ezarritako epean egiten badira (ekitaldiaren amaiera).

Hitzarmen honetan aurreikusitako ondorioetarako, egindako gastutzat hartuko da justifikazio-epea amaitu aurretik egiaz ordaindu dena.

Hamargarrena.- Ez betetzea eta itzultzeak.

1.- Ezarritako baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.- Ez-betetze partzialaren kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa zein den zehaztuko da honen arabera: proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta; eta aintzat hartuta ez-betetze hori guztiz betetzetik arras hurbil egotea eta toki-erakunde betearazleak egiaztatzea bere konpromisoak betetzeko jardun argia.

3.- Itzultzeko prozedura hasiko da Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez, eta itzulketa eragin duen arrazoia, bete ez diren betebeharrak nahiz horien zenbatekoa arrazoitu beharko dira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 41. eta 42. artikuluen babesean. Ebazpen horren berri emango zaio jarduketak gauzatzen dituen toki-erakundeari, hamabost eguneko epean alegazioak egin eta aurkez ditzan bere eskubideen alde egokitzat jotzen dituen frogak. Itzultzeko ebazpena hartzeko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura ofizialki hasi eta hurrengo egunetik aurrera. Itzulketa-ebazpenak honako hauek jasoko ditu: bete ez duen toki-erakundearen identifikazioa, itzulketa eragin duen arrazoia, itzulketaren zenbatekoa zein legezko interesak.

4.- Dirulaguntza aldatu ahal izango da, dirulaguntza hori emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira. Hori guztia hala izango da, betiere, betetzen badira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.12. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak.

Hamaikagarrena.- Suntsiaraztea eta aldatzea.

1.- SPAJLren 51. artikuluan aurreikusitakoak izango dira azkentzeko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzea.
- c) sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori jakinaraziko zaie hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Arrazoi horrengatik hitzarmena suntsiarazten bada, sortutako kalteen ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

d) Hitzarmenak baliorik ez duela adierazten duen erabaki judiziala.

e) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

2.- Hitzarmen hau aldatzeko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak 49.g) artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta gehigarri bidez formalizatuko da, lege aurreikusitako izapideen arabera, beharrezkoa den kasuetan.

Hamabigarrena. – Indarraldia.

1.- Hitzarmen honek urte natural bateko iraupena izango du, sinatzen denetik hasita.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo hura azkentzea, 40/2015 Lege Organikoaren 49.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hamahirugarrena. - Datuen babes

Alderdi sinatzaileek, datuen babesari dagokionez, honako hauek bete beharko dituzte: 2016/679 Erregelamendua (EU), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, —datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baitu—, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Digitalen Babesari buruzkoa.

Hitzarmen honetan, Errenteriako Udala izango da tratamenduaren arduraduna, aipatutako araudian ezarritako baldintzetan eta araudi horrek ezartzen dituen betebeharrak eta baldintzekin.

Hamalagarrena. – Aplikatu beharreko araubidea.

1.- Hitzarmen honi aplikatu beharreko araubide juridikoa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluan ezarritakoa da. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Diru-laguntzei

buruzko azaroaren 30eko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko dira, gainerako administrazio-
arauen interpretazioari eta dirulaguntzei buruzko gainerako araei dagokienez.

2.- Hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sortzen diren auziak izango dira
administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte Turismo, Merkataritza eta
Kontsumoko sailburu Javier Hurtado Domínguez jaunak eta Errenteriako alkate-udalburu
Aizpea Otaegi Mitxelenak.

Javier Hurtado Dominguez
Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko
sailburua

Aizpea Otaegi Mitxelena
Alkalte-Presidentea